2022ko ekainaren 10a | 20. urtea | 896. alea
Durangaldeko astekaria
www.anboto.org

anboto

Lekuan lekuko 20 urte

TOKIKOM

Tabirra garagardo azoka, Durangon

Azoka • Durango Rugby Taldeak (DRT) garagardo azoka antolatu du ekainaren 16tik 19rako, Durangoko Landako Gunean. Tabirra izena ipini diote ekimen berriari eta harrera ona badu urteroko hitzordu bihurtu gura dute. • **20**

Bisita gidatuak, Oizen egindako historiaurreko aurkikuntzak erakusteko

Arkeologia • Berrizko eta Mallabiko udalek hala eskatuta, ikerketa arkeologikoak egin dituzte Oiz mendiko gune bitan. Aurkitutakoak aurkezteko, ekainaren 19an bisita gidatuak egingo dituzte. Bertan lanean aritu diren arkeologoek emango dituzte azalpenak. • **10**

Arroza, kulturak batu eta aurreiritziak baztertzeko

Kulturartekotasuna • Durangoko elkarteek eta parte hartze tailerrak Munduko Arrozak jaialdia egingo dute zapatuan. Elkar nahastera eta aurreiritziak birrintzera deitu dituzte herritarrak. • **4**

Tapia eta Leturia Otxandion, Mekoletako jaietan

Jaiak • Mekoleta auzoko jaietan Tapia eta Leturia eta Mice taldeen kontzertuak izango dira, besteak beste, asteburuan. • **8**

Julen Landa Etxeberria
Datu analista
DONOSTIA | **1985**

"Durangon 1.152 etxebizitzak bi urte edo gehiago daramate jenderik gabe"

DURANGO • JONE GUENETXEA

Gislan kooperatibak Durangoko Etxebizitza parkearen azterketa egin du Durangoko Udalarentzat. Julen Landa Etxeberria izan da datu horiek guztiak landu dituena.

Zein izan da ikerketa honen helburua?

Azterlan honen helburu nagusia Durangoko etxebizitza parkearen ezaugarriak eta erabilera aztertzea izan da. Hori zen udalaren aldetik jaso genuen egitekoa. Etxebizitza parkeak udalerrian gaur egun dituen problematikei erantzuteko informazio zehatza eskuratu beharra zuen udalak, beti ere ebidentzietan oinarrituta.

Zein datu aztertu dituzue?

Lan hau egiteko udaleko datu gordinak ustiatu ditugu: biztanle eta etxebizitza erroldenak, eta azken bi urteetako ur kontsumoarenak. Bi emaitza nagusi erdietsi ditugu datuon azterketatik. Batetik, Durangoko metabolismo demografikoaren eta etxebizitza parkearen diagnostikoa egin dugu. Ondorioz, Durangoko biztanleriaren eta bizikidetza unitateen orain arteko bilakaera eta hauen etorkizuneko balizko eboluzioa aztertu ditugu lehenik, eta udalerriko etxebizitzen erabilera maila eta hurrengo 15 urteetako etxebizitza beharrak kuantifikatu ditugu. Bestetik, Durangoko etxebizitza parkearen web bisore kartografikoa garatu dugu; udal teknikari eta arduradunek etxebizitzen katalogo geoerreferentziatuaren datuak kontsultatzeko aginte panel bat da, udal gehienek oraindik behintzat ez daukaten tresna berritzaile bat. Hainbat datu iturritako informazioa sistematizatu dugu aginte panelaren bidez, eta udalerriko etxebizitza parkearen erabilerari buruzko datu gaurkotuak mantendu ditzake orain udalak, balizko etxebizitza hutsen erregistro eguneratua uneoro izatearekin batera.

> ***Etxe hutsak Alde Zaharrean eta bere inguruko auzoetan kontzentratzen dira, nagusiki***

Etxebizitza arloko aurreikuspenak egiteko, garrantzitsua da biztanleria datuak aztertzea. Zein hazkunde izan du biztanleriak azken hamarkada bietan?

Durangok %21,7ko biztanleria hazkundea izan du azken bi hamarkadetan. Epealdi horren barruan jaiotako durangarrak epealdi berean hil direnak baino mila inguru gehiago izan dira. Horrekin batera, denbora tarte horretan Durangora bizitzera etorri direnak herritik kanpora joan direnak baino 4.500 inguru gehiago izan dira. Ildo horretan, hurrengo 15 urteetan dinamika demografikoak mantentzen badira, Durangoko biztanleria %8,5 haziko dela eta 32.300 biztanlera iritsiko dela aurreikusi daiteke.

> ***Durangok %21,7ko biztanleria hazkundea izan du azken bi hamarkadetan***

Biztanleriaren adinak zein bilakaera izan du?

Zahartze eta gain-zahartze tasak hurrenez hurren %19,5 eta %6,1eraino igo diren arren, eskualdeko eta herrialdeko balioak baino txikiagoak dira gaur gaurkoz. 20tik 34 urtera arteko pertsonen proportzioari erreparatzen badiogu ia hamar puntu egin du behera Durangon azken hogei urteetan, %15,1eraino. Adin tarte horretan, guztira, duela 20 urte baino 1.600 pertsona gutxiago daudela esan nahi du horrek.

Adinaren eta jatorriaren arabera auzoetan segregazioa antzematen dela diozue.

Bai. Ezkurdi, Sasikoa, San Inazio eta Erretentxu Hego auzoetan, esaterako, zahartze tasa Durangoko batez bestekoa baino 9 puntu altuagoa da. Emantzipatutako gazteen zein estatutik kanpora jaiotakoen bizikidetza-unitateak, berriz, Alde Zahar inguruan kontzentratzen dira.

Gaur egungo etxebizitza parkeak zein ezaugarri ditu?

Familia anitzeko eraikin tipoak dira Durangoko etxebizitza gehienak, 1950 eta 2000. urteen bitartean eraikiak eta tamaina ertain-handia dutenak. Horrek garai bateko bizikidetza-unitateen tipologiari erantzuten dio, baina egungo egoera oso desberdina da. Bizikidetza-unitateen kopurua gora egiten ari da biztanleria hazkundearen eta bizikidetza-unitateen tamaina txikitzearen ondorioz, eta horrek etxebizitza parkearen gaineko presioa handituko du.

Jenderik bako etxebizitzak edo hutsik daudenak ere aztertu dituzue. Etxebizitza huts bat zelan detektatzen da? Zein ezaugarri izan behar ditu?

Etxebizitza baten erabilera baloratzeko, molde desberdinak erabili daitezke. Azterlan honetarako, Eusko Jaurlaritzak 149/2021 DEKRETUAn zehazten dituen irizpideak hartu ditugu aintzat. Dekretu horrek etxebizitza jakin bat jenderik gabeko etxebizitza deklaratzeko legezko kasuak xedatzen ditu. Dagokigun kasurako, Durangoko etxebizitza guztien azken bi urteetako ur-kontsumoetan oinarritu gara, besteren artean.

Etxebizitza hutsen inguruan zein datu atera dituzue?

Azterlanak datu esanguratsuak erakutsi ditu. Durangoko etxebizitza parkearen %10,6, 1.405 etxebizitza zehazki, jenderik gabeko etxebizitzatzat kontsideratu daitezke legalki. Horien %82k,

1.152 etxebizitzak hain zuzen ere, bi urte edo gehiago daramate egoera horretan.

Etxebizitza huts horiek zein auzotan banatzen dira?

Etxebizitza hauen banaketaren patroi espaziala argia da: Alde Zaharrean eta bere inguruko auzoetan kontzentratzen dira, nagusiki. Ezkurdi inguruan ez horrenbeste, baina eremu horretan etxebizitza parkea etxebizitza zaharrak eta tamaina txikikoak izateagatik ezaugarritzen da. Bestalde, etxebizitza hutsen tasarik baxuena duten auzoak etxebizitza berrien proportzio handia duten eremuak dira.

Ageriko erabilerarik ez duten etxebizitzen banaketak auzo mailako desoreka handiak dituela bistakoa da: Ezkurdi (%22,0), Alde Zaharra Hego (%21,6), Alde Zaharra Ipar (%17,5) eta Erretentxu Ipar (%17,3) dira etxebizitza huts proportziorik altuena duten auzoak. Aldiz, San Inazio (%5,2), Murueta Torre (%6,0) eta Ibaizabal (%6,3) dira etxebizitza hutsen tasa txikiena dutenak.

Azterturiko datuak kontuan izanda, zein izan daiteke etxebizitza politiken erronka Durangon?

Durangaldea eta Durango biztanleria hartzen ari dira. Gaur egungo Euskal Herriko geografia sozioekonomikoan kokagune garrantzitsua da Durangaldea. Durangoko kasuan zehazki, beste udalerrietatik datorren presioa aintzat hartu gabe ere, bertako bizikidetza-unitateen kopuruak gora egingo du biztanleria hazten eta bizikidetza-unitateen tamaina txikitzen doan heinean. Horrek etxebizitza parkearen gaineko presioa eta etxebizitza beharrari lotutako problematikak areagotuko ditu ezinbestean. Etxebizitza beharrari lotutako auziaz gain, bizitza proiektu desberdinei lotutako problematikentzat ere erantzunak bilatu beharko dira (emantzipatu nahi duten gazteak, aldi baterako etxea behar dutenak, bakarrik bizitzeko hautua egin dutenak...).

Durangoko gaur egungo etxebizitza parkeak herritarren etorkizuneko etxebizitza beharrei erantzuteko gaitasuna izatean dago, beraz, erronka nagusia. Horretarako, etxebizitza parkearen erabilera optimizatzea izango da gakoetako bat; bestela esanda, gaur egun dauden etxebizitza hutsei zein etorkizunean hutsik geratuko diren etxebizitzei ahal den neurrian erabilera ematea sustatzea. Azken honetara bideratzen diren politikek, era berean, etxebizitza parkea etorkizuneko bizikidetza-unitateen tipologietara egokitzen lagundu beharko dute.



Durangoko parte hartze tailerreko kideak gogotsu daude jaialdirako eta arroza kozinatzeko.

"Durangon bizi diren kultura anitzen arteko elkargunea egin gura dugu, elkar nahastu"

Zapatuan Munduko Arrozak jaialdia egingo dute Ezkurdin. 500 bat bazkaltiar batuko dira. Egitasmoak leiho bat zabalduko du herritarren integrazioa eta aniztasuna aldarrikatzeko

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Gogotsu daude, kozinatzeko gertu, baina, batez ere, elkar ezagutzeko eta aurreiritziak apurtzeko prest. Durangoko parte hartze tailerrak Munduko Arrozak jaialdiaren hamalaugarren edizioa egingo du zapatuan. Ezkurdi plazan 500 bat lagun batuko dira arroza nork bere erara prestatu eta Durango herri anitza dela aldarrikatzeko. Eneko Baseta (Berriz, 1981) izango da jaialdia saltsarik saltsa biziko duen kideetariko bat. Aurtengo edizio honetan "ilusioa" igarri du: "Munduko Arrozak berriro ere antolatzea lorpen bat da. Ilusio berri bat igarri dut jendearengan. 2019an bazegoen gogoa, baina giroa beste era batekoa zen. Aurten, bizipoza igarri dugu. Eta ahaleginduko gara elkarregaz batu baino, elkarregaz gehiago nahasten. Durangon bizi diren kultura anitzen elkargune bat egin gura dugu", dio Basetak. Ghana, Ekuatore Ginea, Kolonbia, Senegal, Ekuador eta Euskal Herria. Zerrenda azkar bat egitea nahikoa da Ezkurdin batuko den aniztasunaz konturatzeko. Aberastasun hori guztia, gainera, herriko hainbat elkartek babestuta egongo da. La otra mirada, Inurri eskaut, Andereak, Batukandra, Zabaltzen, Denbora Bankua eta Jesuiten Etxea jaialdira batuko diren elkarteetariko batzuk baino ez dira.

Arroza prestatzeko epea zarratuta dagoen arren, badago bertan parte hartzeko aukera. "Jendea elkarteetara joan daiteke, arroza zelan prestatzen duten galdetzeko, giroan sartzeko. Badago parte hartzeko modua", dio Basetak. Horrez gainera, berriztarrak gogorarazi du Durangoko parte hartze tailerra urte osoan dagoela martxan eta elkarteek zein herritarrek zabalik dutela bertan eragiteko aukera.

Aurreiritzien kontra

Zapatuko jaialdia aurreiritziak baztertzeko ariketa polita izan daiteke, migratzaileekiko aurreiritziak birrintzeko tresna. "Desberdina denari, ezezaguna denari, beti diogu halako mesfidantza bat, baina hori guztia desagertu egiten da zure bizilaguna, auzokidea, ezagutzean. Ultraeskuinaren diskurtsoek ez dute laguntzen. Diskurtso horiek ahalduntzen ari dira, baina, zorionez, baditugu horren kontrako proiektuak. Basauriko eta Getxoko Zurrumurruen Kontrako Taldeak lan polita egiten dabiltza. Irungo eta Atxondoko Harrera Taldeek ere bai", dio Basetak. Batek daki, zapatukoak egitasmo berriak sortzeko ere balioko du beharbada. Eta, dudarik barik, aurreiritziak apurtzen jarraitzeko.

Bazkariaz gainera, dantzak, kalejira eta kontzertuak

Arrozaz eta herri bazkariaz gainera, bestelako ekitaldiak ere egongo dira zapatuan. 9:00etan, muntaketa lanak hasiko dituzte Ezkurdin. 11:00etan, Batukandrak giroa berotuko du. 12:00etan dantzak, txaranga eta tailerrak egongo dira. Bazkaria 13:00 aldera izango da. Musika saioa egiteaz arduratuko direnak Dana D'Capricho eta Beat Salad Records Hip Hop kolektiboa izango dira. 15:30ean hasiko dira emanaldiekin.

Durangoko Udalak hornidura merkatua eraberritzeko proiektua aurkeztu du

Proiektuaren erredakzioa uda osterako lizitatu gura duela dio udalak, lanak 2023an hasi ahal izateko

DURANGO • JONE GUENETXEA

Durangoko Udalak hornidura merkatua berritzeko proposamena aurkeztu du. Prentsa oharrean azaldu dutenez, "espazio historiko baten eraldaketa osoa eskaini eta gertuko kontsumoa zein hartu-eman soziala biziberritzea da asmoa". Aurkezpena martitzen honetan egin dute, Durangoko udaletxean, aurreproiektua egiteko prozesuan lagundu duten eragileen aurrean.

Hornidura merkatuaren aurreproiektua idazteagaz batera, merkatuko plaza aldi berean birmoldatzea gura duela azaldu du udalak. Aurreproiektuekin egindako kalkuluen arabera, hornidura merkatuaren eta merkatu plazaren berrikuntza osoak sei milioi euro inguruko inbertsioa suposatuko luke, eta, horretarako, udala dagoeneko lanean dabil hainbat finantziazio bide lortzeko. Merkatu plazako eta hornidura merkatuko aurreproiektuak aurkeztu ondoren, Durangoko Udalak proiektuaren erredakzioa uda osterako lizitatu gura du, lanak 2023an hasi ahal izateko. Udal arduradunek aurreratu dute hornidura merkatuaren aurreproiektuak "merkatu moderno eta balioaniztuna" aurreikusten duela herritarren eskaerei aurre egiteko.

EAJren kritika

Durangoko EAJren iritziz, proiektuak ez ditu proposaturiko helburuak betetzen. Euren esanetan, gobernu taldearen proposamenak ez ditu "plazaren bi aldeen artean (baserritarrak eta handizkako azoka) sinergiak" sortzeko balioko, ezta "Alde Zaharra dinamizatzeko eta biziberritzeko espazio irekiago bat" sortzeko ere. Bestalde, EAJk kritikatu du gobernu taldeak elkarteekin eta inplikaturiko eragileekin "kontrastatu barik" egin duela proiektua, "inor kontuan hartu barik". Hori dela eta, jeltzaleek bilerak hasiko dituzte inplikaturiko eragileekin, "proiektua hobetzeko proposamenak jasotzeko".

Merkatuko aurreproiektuari buruzko infografia.

anboto
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org
2022ko ekainaren 10a
20. urtea - 896. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01
ISSN: 1578-7028
Tirada: 12.000 ale

2015 Bikain euskararen kalitate zuztaguna certificado de calidad en la gestión lingüística

PEFC ziurtagiria Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka www.pefc.es
PEFC
PEFC/14-38-00225

LAGUNTZAILEAK

Bizkaia foru aldundia diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

ABADIÑO AMOREBIETA - ETXANO ATXONDO BERRIZ DURANGO ELORRIO GARAI IURRETA IZURTZA MALLABIA MAÑARIA OTXANDIO ZALDIBAR

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Ainhoa Salterain eta Anartz Gandiaga zinegotziak, aterpearen infografia eskuetan.

Zelaieta parkeko umeen jolasguneari aterpea ipintzea adostu dute

Lanak exekuzio fasean sartzen direnetik obrek lau hilabete irautea gura dute. Inbertsioa 523.000 eurokoa da

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Eguraldi txarra egiten badu, aterpea. Eta eguzkiak gogor sakatzen badu, gerizpea. Zornotzako Udalak Zelaieta parkeko txintxaunei aterpe bat ipintzea onartu du. Hori bai, oraindino goiz da esateko aterpea noiz egongo den gertu. Lanak egikaritze fasean sartzen direnetik obra lau hilabeteren bueltan amaituta egotea aurreikusi dute, baina oraingoz ez dago data zehatzik.

Aterpearen egitura zur laminatuzkoa izango da, lau zutabez osatuta egongo da eta teilatuak ura desbideratzeko isurkiak izango ditu. Horrez gainera, egiturak polikarbonatozko itxitura bat izango du bere perimetroan, euria albotik sartzea galarazteko. Argiztapenari dagokionez, LED zerrenda batzuk ipiniko dituzte. Udalaren berbetan, egiturako zurak "berotasuna eta estetika" emango dizkio eremuari, eta aterpea inguruneagaz "integratuta" geratuko da, "parkeko berdeguneekin batera". Proiektua gobernu batzordean onartu dute. Udalak 523.000 euro ipiniko ditu egitasmorako.

"Zornotzan Kantuz egiteko gogoa dago; elkarregaz abestera gonbidatu gura ditut herritarrak"

Iñaki Gonzalezek eta Zornotzako kantuzaleek Zornotzan Kantuz egitasmoa egingo dute ekainaren 17an, 19:30ean

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Imajinatu ehunka zornotzar eztarria urratu beharrean kantuan. Kalean, denak batera, errime. Imajinatu orain euskal abestiren bat kantatzen dutela. Benito Lertxundiren *Baldorba,* esaterako. Edo *Boga Boga*. Eta gehitu horri guztiari poteo bat. Ardo bat, edo bi. Hiru ere bai, akaso. Bada, gutxi gorabehera, horixe egingo dute datorren barikuan, ekainaren 17an, *Zornotzan Kantuz* ekimenean. Zornotzako kantuzaleek herriko kaleetara irtengo dute abestera, eta herritarrak kantuan ipintzera. Egitasmoa koordinatzen dabilen kideetariko bat Iñaki González Furundarena da, Andra Mari ikastolako gurasoen abesbatzako kidea. "Bilboko Alde Zaharretik kuadrillagaz nindoan batean, talde handi-handi bat ikusi nuen kantuan. *Bilbo Kantari* egitasmoa zen, eta pentsatu nuen ideia Zornotzara eramatea", azaldu du. Hortik aurrerakoa bere kabuz etorri da. "Marian Ruizegaz (ikastolako gurasoen abesbatzako zuzendaria), Maite Gonzalezegaz (Alaiak abesbatza), Mireia Izagirregaz (Zornotzako korala) eta Iban Ibarretxegaz (Zornotzako Otxotea) hartu-emanetan jarri nintzen. Ideia proposatu nien eta ikaragarri gustatu zitzaien. Datorren barikuan elkarregaz irtengo dugu kalera, euskal kantak abestera", esan du Gonzalezek. Venecia kafetegiaren aurrealdetik irtengo dute, 19:30etan. Gero, herriko hainbat plaza eta taberna zeharkatuta, Tomasa-Antxeta tabernetan amaituko da. "Zornotzan Kantuz egiteko gogoa dagoela igartzen dut, eta euskal kantak denok elkarregaz abestera gonbidatuko nituzke herritarrak", adierazi du. "Jendeari eskatuko nioke kutsu euskalduna duen zeozer ekartzeko aldean: zapi bat, txapela bat...", gaineratu du. Hori eta eztarri osasuntsuak ere bai.

Iñaki Gonzalez egitasmoaren antolatzaileetariko bat.

Ganeko igerilekuen udako denboraldia ekainaren 15ean hasiko dute

Astelehenetik zapatura, 11:00etatik 21:00etara egongo dira zabalik. Domeketan, 11:00etatik 20:00etara

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak jakinarazi du Ganeko igerilekuak ekainaren 15ean zabalduko dituztela. Banakako sarrerak zein 10 sarreratako bonuak erosi ahal izango dira. Helduen banakako sarrerak lau euro balioko du, eta adintxikikoenak bi. Helduen hamar sarreratako bonuak 30,30 euroan eskuratu ahal izango dira, eta 15,20 euroan umeenak. Bestalde, elkarteek eta udalekuetako erabiltzaile direnek ere egun bateko sarrerak erosi ahal izango dituzte. Helduen kasuan 2 euroan, eta adintxikikoen kasuan 1,10 euroan.

Uda osoko bonua egin gura dutenek horretarako aukera izango dute, honako prezio hauetan: familiakoa 45,5 euroan, banakakoa 30,30 euroan, 15 urtetik beherakoa 20,20 euroan, eta Gazte Karneta erakutsita 24,20 euroan. Igerilekuetako ordutegia, astelehenetik zapatura, 11:00etatik 21:00etara izango da; domeketan eta jaiegunetan, 11:00etatik 20:00etara.

Ganeko igerilekuak.

GARAIKO UDALA

GARAI ELIZATEKO UDALA
San Migel auzoa, 20· 48200 Garai
udala@garai-udala.eus
Tel. 946816393

GARAIKO UDALAK
LURSAIL BAT JARRI DU SALGAI MILIKUA
EREMUAN

Garaiko Udalak bi lursail ditu Milikua eremuan eta horietako bat salgai jartzea erabaki du. Familia bat bizitzeko aukera ematea da salmentaren arrazoia. Izan ere, Garain ez dago eraikigarriak diren lursailen aukera handirik.

Ezaugarriak:

- Lursailak 3.066,12 metro koadroko azalera dauka.
- Lursailak, 377 metro koadroko gehienezko eraikigarritasuna dauka.
- Lursailaren gutxieneko prezioa 72.433,05 eurokoa da. Prezioari aplikatu beharreko zerga BEZ-aren %21a da.
- Interesdunek uztailaren 27ko 23:59ak arte egin ahalko dituzte eskaintzak. Horretarako, bitarteko elektronikoak baliatu behar izango dituzte.

Edozein gisaz, xehetasunak eskatu, zalantzak argitu edo argibideren bat behar izanez gero, interesdunek Garaiko Udalera jo dezakete.

Garain, 2022ko maiatzaren 26an
Alkatea

Domekan artisau eta sortzaileen azoka egingo dute Elorrion

Urarka kalean egingo duten azokan 22 artisau eta sortzailek parte hartuko dute guztira

Aurreko edizio bateko argazkia.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eixu elkarteak antolatzen duen azokaren seigarren edizioa egingo dute aurten Elorrion, Urarka kalean. Azokak 10:30ean zabalduko ditu ateak eta 14:30era arte egongo da zabalik. Elkartetik jakinarazi dutenez, domekako azokan 22 artisau eta sortzaileren lanak ikusi eta erosteko aukera izango da. Honako produktu hauek, hain zuzen ere: kosmetika produktuak, ilustrazioak, oihalezko osagarriak, poltsak eta bitxiak, besteak beste. Inguruko artisau eta sortzaileen lanak ezagutu eta erosteko aukera izateaz gainera, sortzaileekin berba egiteko aukera ere egongo da. "Azoka honek aukera paregabea ematen du gure lanak ezagutu eta sortzaileekin berba egiteko", azaldu du Aurkene Pagalday Eixu elkarteko kideak.

Azokan Fanfarrixo taldeak alaituko du giroa; umeentzako txokoa ere egongo da

Antolatzaileek jakinarazi dute goiz guztian zehar umeentzako txokoa egongo dela Urarka kalean, eta Fanfarrixo taldeak azoka girotuko duela. Fanfarrixo taldearen emanaldia12:30ean hasiko da.

Urarka biziberritzen

Bestalde, Eixu elkarteko kideek esan dute azoka honek "bizia" ematen diola Urarka kaleari. "Normalean, Elorrioko plazan egiten dira gauza guztiak, eta azoka honegaz Urarka kaleari bizia eman gura genion eta ematen diogu", jarraitu du Pagaldayk.

Bestalde, azokak irauten duen bitartean "oso giro ona" egoten dela adierazi dute, eta domekan Urarka kalera bertaratzeko deia egin diete herritarrei.

Elorrion eguneko zentro baten beharrizana dagoen aztertuko dute

Elorrioko Udalak eskariari buruzko txostena egingo du eta Bizkaiko Foru Aldundiari aurkeztuko dio gero

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak prentsa ohar bidez jakinarazi duenez, laster azterlan sakon bat ipiniko du martxan mendekotasun egoeran dauden adinekoen benetako eskaria eta herriko premiak ezagutzeko. Elorrion eguneko zentro bat behar den ala ez jakitea da azterlanaren helburua.

Maiatzaren amaieran, Idoia Buruaga Elorrioko alkatea oposizioko ordezkariekin eta Sergio Murillo Gizarte Ekintzako foru diputatuagaz batu zen, Elorrion eguneko zentro bat izateko herrian dagoen eskariari berriro heltzeko asmoz. Prentsa oharrean azaldu dutenez, hasieran zeuden datuekin Gizarte Ekintzako diputatuak Elorrion eguneko zentro bat zabaltzeko behar besteko eskaririk ez zegoela esan bazuen ere, "begi onez" ikusi zuen Elorrioko Udalak azterketa bat egitea. Hau da, udalak herriko benetako eskaria ikusteko azterlan sakona eginez gero, zerbitzu hori eskaintzeko aukera aztertzeko prest egongo litzatekeela adierazi zuen Murillo diputatuak batzarrean. “Jarrera aldaketa hori modu positiboan baloratzen dugu, eta benetako eskaria, eta ez eskari potentziala bakarrik, ezagutzeko aukera emango digu", adierazi du Idoia Buruaga alkateak.

Hori horrela, datorren asteetan azterlana martxan ipintzeko lehenengo pausoak emango dituztela azaldu dute.

Elorrioko Alde Zaharreko argazkia.

Urte biko etenaren ondoren, San Antonio azoka egingo dute astelehenean Urkiolan

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urte biko etenaren ondoren, San Antonio azoka egingo dute berriro Urkiolako santutegi bueltan. Abadiñoko Udalak, Urkiola Landa Garapenak eta Urkiolako Santutegiak elkarlanean antolatu duten azoka, eta 34 ekoizle eta 150 abelburu batuko ditu. "Jendea jai egun honetaz gozatera, Urkiolako Parke Naturalaren aberastasun naturalean murgiltzera eta gure lehen sektoreari laguntzera animatu gura dugu", azaldu du Mikel Garaizabal alkateak. Irene Zuazo Urkiola Landa Garapeneko teknikariak adierazi du San Antonio azoka "oso aproposa" dela inguruko ekoizleentzat, "euren produktuak ezagutzera emateko".

Egitarauari dagokionez, trikitilariak, bertsolariak eta mezak antolatu dituzte ekainaren 13ko azokarako. Bestalde, ekainaren 19an Euskadiko Herri Kirol Txapelketak izango dira, besteak beste. Horrez gainera, aurten autobus zerbitzua egongo da. Autobusa 9:00etan, 10:00etan eta 11:00etan irtengo da, Zelaietako autobus geltokitik, eta Traña-Matienan eskola aurrean geldituko da. Bueltakoa 17:00etan eta 18:00etan irtengo da, Urkiolatik.

Ezkerretik hasita, Felix Moreno, Irene Zuazo, Mikel Garaizabal eta Iñaki Rekalde.

Hogei urteko zigorra beteta, Aitzol Maurtua kalean da

Atxondarra 2002ko ekainean atxilotu zuten; 20 urteko kartzela zigorra osorik bete ostean irten da espetxetik

ATXONDO • ARITZ MALDONADO

20 urteko kartzela zigorra beteta, Aitzol Maurtua atxondarra kalean da zapatu goizetik. Maurtua Basauriko (Bizkaia) espetxetik irten zen, zigorra osorik bete eta gero.

2002ko ekainean atxilotu zuten, Algemesin (Herrialde Katalanak). Kartzelaldiaren azken zatia Basauriko kartzelan egin du; iazko uztailean lekualdatu zuten hara. Aurretik, Huelvako (Andaluzia, Espainia) eta Dueñasko (Palentzia, Espainia) kartzeletan ere egon da, besteak beste.

Kartzela aurrean ateratako argazkia.

Okm:
batzen gaituen distantzia

Egin zaitez anbotokide!

anboto kide

Tapia eta Leturia eta Mice taldeen kontzertuak daude Otxandion, Mekoleta auzoko jaietan

Mekoletako jaietako beste osagai bat zapatu gaueko bertso afaria da, Erika Lagoma, Eneko Abasolo 'Abarkas', Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariekin. Ondoren, Xabi Aburruzagak eta Josu Urrutiak erromeria egingo dute

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Asteburuan jaiak ospatuko dituzte Otxandioko Mekoleta auzoan, eta Arkotxe kultur elkarteak ekimenez beteriko egitaraua prestatu du. Gaur, barikua, iluntzeko txupinazoagaz hasiko dituzte jaiak, eta gazte afarian batuko dira. Txartelak gaztetxean, Fondan eta Arkotxen eskuratu daitezke, 10 euroren truke. Jaietako lehenengo eguna Mice eta Ziribulio Sound Kolektiboa taldeen musika kontzertuekin amaituko dute. Miren Narbaizak, Napoka Iria taldeko abeslari ohiak, 2017tik martxan duen proiektua da Mice. Orain arte disko bi kaleratu ditu. Bestalde, Ziribulio Sound Tolosalde eta Goierri inguruko sei lagunek osaturiko musika proiektua da. Glaukoma taldeko Juantxo Arakama da taldekideetariko bat. Reggae, rap eta beste estilo batzuk uztartzen dituzte euren musika proposamenean.

Miren Narbaizaren Mice taldearen zuzenekoa izango da barikuko kontzertuetariko bat.

Zapatuan, San Bernaberako ibilaldiagaz hasiko dute eguna. Arratsaldean, 17:00etan, Urduri dantza taldeak saioa egingo du, eta, jarraian, Kalakan haur jolasak egingo dituzte. Iaz harrera ona izan zuten jolasek eta aurten errepikatu egingo dituzte. Egunari emango dioten amaiera ez da nolanahikoa. 19:30ean, Tapia eta Leturia trikitilari ezagunek kontzertua joko dute euren taldeagaz. 1986tik hona makina bat disko kaleratu eta hainbat herritako plaza bisitatu dituzte. Nazioartean ere ibili dira. Ondoren, 22:00etan, bertso afaria egingo dute Erika Lagoma, Eneko Abasolo 'Abarkas', Unai Iturriaga eta Igor Elorza bertsolariekin. Txartelak Fondan, Txokoan eta Arkotxen eskuratu daitezke, 15 euroan. Azkenik, erromeria egongo da, Xabi Aburruzagagaz eta Josu Urrutiagaz.

Aurten, lehenengoz, Arkotxe elkartekoek balkoi, ate eta leihoen dekorazio lehiaketa antolatu dute

Jaiak domeka eguerdiko poteo musikatuagaz eta arratsaldeko briska eta mus txapelketekin amaituko dituzte. Jaietako egunetan balkoi, ate eta leihoen dekorazio lehiaketa egingo dute aurten, lehenengoz.

Otxandioko plaza guztiz eraberrituta zortzi urteko prozesuaren ostean

Otxandioko plaza lanak amaituta.

OTXANDIO • J.D.

Otxandion amaitu dituzte plaza eraberritzeko lanak. Horrela, orain zortzi urte hasitako egitasmoa gauzatu du udalak. Hiru fasetan aurrera eramandako prozesua izan da. Lehenengo faseak, 2014koak, iturriaren ondotik hasi eta pilotalekuaren aurreko alderaino dagoen eremuari eragin zion. Bigarrenean, 2019an, frontoi irekiaren inguruan aritu ziren, eta hirugarren eta azken fasean plazaren erdialdea eraberritu dute.

Fase bakoitzeko lanei ekin aurretik indusketa arkeologikoak egin dituzte lur azpian zer dagoen aztertu eta dokumentatzeko. Besteak beste, X. mendean zegoen herrixkaren eta geroagoko dorretxe baten arrastoak aurkitu dituzte eremu hartan. Bisita gidatuak ere antolatu izan dituzte.

Iñaki Conde Martinek irabazi du Izurtzako jaietako aurtengo kartel lehiaketa

IZURTZA • J.D.

Izurtzan irailean ospatuko dituzten jaiak iragartzeko kartel lehiaketak badu irabazlea. Epaimahaiko kideak eguaztenean batzartu ziren aurtengo proposamenak aurkezteko, eta Iñaki Conde Martin abadiñarraren kartela aukeratu zuten. Izurtzako jaiak eta jai giroa ondoen irudikatzen duen kartela iruditu zaie epaimahaiko kideei.

300 euroko saria

Lehiaketara aurkezturiko kartelagaz, Conde abadiñarrak 300 euroko saria irabazi du. Aurten aurreko aldietan baino arrakasta handiagoa izan du lehiaketak, eta zazpi proposamen jaso dituzte.

Mañariko Aldegoiena auzorako bidea konpontzen ibili dira asteon

Udalak 26.000 euro inbertitu ditu auzo bidea hobetzen

MAÑARIA • J.D.

Mañariko Udalak Aldegoeina auzora doan bidea konpondu eta hobetzeko lanak egin ditu aste honetako martitzenean. Besteak beste, auzo bideko ia 600 metrotan asfalto berria bota zuten ibilgailuen joan-etorria errazteko. Udalak 26.000 euroko inbertsioa egin du proiektua gauzatzeko. Udal arduradunek azaldu dutenez, auzo bide horretan zuloak zeuden, narriatuta zegoen eta konponketa bat behar zuen.

Besteak beste, asfaltoa bota dute auzo bidean.

Gremioen gida

Zurgintza
leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK

www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza
Mallabiena
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.
Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza
Ubide
iturgintza
Iturgintza, gasa eta berokuntza
946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza
UNAI GARAY
ITURGINTZA BEROGINTZA GASA
Instalatzaile baimendua
659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Zurgintza
ATERPE AROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa
JAIObarnizatuak
Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu
Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Oiz mendian historiaurreko aurkikuntza arkeologikoak egin dituzte eta bisita gidatuak eskainiko dituzte

AGIRI Arkeologia Elkarteak egin du ikerketa, Berrizko eta Mallabiko udalen eskariz; Oizeko gune bitan egin dituzte, Iturzuriganan eta Probazelaiburun

BERRIZ / MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Berrizko eta Mallabiko udalek hala eskatuta, ikerketa arkeologikoak egin dituzte Oiz mendiko gune bitan. AGIRI arkeologia elkarteak egin du ikerketa; 2021etik Iturzurigainan (Berriz) eta Probazelaiburun (Mallabia) dauden multzo megalitikoak ikertzen aritu dira. Ekialdeko Kantauriko Historiaurrea Berriaren barruan aurkikuntza "berritzaileak" egin dituzte, ohar batean udal biek jakinarazi dutenaren arabera. Lan arkeologiko horien emaitzak datozen egunetan aurkeztuko dituztela iragarri dute.

AGIRI arkeologia elkarteak egin du ikerketa.

Orlan Isoird eta Igor Aguirre Berrizko eta Mallabiko alkateek egitasmoaren garrantzia azpimarratu dute. "Azken urteotan udalerriko natura eta kultura ondarea berreskuratzeko eta balioesteko proiektu garrantzitsu bat lantzen gabiltza Berrizko Udalean. Oiz mendiaren ingurua du ardatz, eta ikerketa honen emaitzak, aurkituriko aurkikuntzengaitik, proiektu horren barruan daude", azaldu du Isoird Berrizko alkateak. Bestalde, Igor Aguirre Mallabiko alkateak proiektuak duen garrantzia nabarmendu du: "Azken urteotako udal aurrekontuaren ardatzetariko bat Mallabiko kultura ondarea berreskuratzea da, gure historia eta ingurunea balioesteko. Horretarako, hainbat jarduketa egiten gabiltza eta horien barruan kokatzen da proiektu arkeologiko hau". Ekainaren 8an Berrizko Kultur Etxean egindako berbaldian parte hartu zuten biek, Juan Carlos Lopez Quintana AGIRI arkeologia elkarteko arkeologoaz batera. 'Oiz mendia: lau milurteko hileta-praktikak, espazio sakratua eta lurralde-erreferentzia oraintsuko historiaurrean' izena zuen berbaldiak.

Bisita gidatuak

Berbaldiaz gainera, ekainaren 19an bisita gidatuak egingo dituzte gune horretara. Bertan lanean aritu diren arkeologoek Oizko estazio megalitikoan egindako aurkikuntzak azalduko dituzte, baita eremu bi horietan egindako esku-hartze arkeologikoak ere. Bisita egin eta gero, hamaiketako txiki bat egingo dute, eta 12:30 inguruan bueltatuko dira. Irteera 09:00etan izango da, Berrizko Elizondo plazatik; ordu erdi geroago, Mallabiko Zengotita auzoko ermitatik irteteko aukera ere egongo da.

Ibilbidea oinez egiteko zailtasunak dituztenek doako autobus zerbitzua edukiko dute, herri bietan. Horretarako, 94 682 4036 telefonora deitu beharko da aldez aurretik, izen-abizenak eta NANa emateko.

Dendariak eta Iurretako alkatea.

Herrian erosi eta kontsumitzeko kanpaina berria hasi dute Iurretan

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak herriko merkataritza sustatzeko kanpaina berria ipini du martxan, Dendak Bai elkarteagaz elkarlanean. Ekimenak *Iurretan erosi eta osatu herria!* izango du leloa, eta uztailaren 3ra arte iraungo du. Iurretako saltoki eta ostalaritzan egindako 20 euroko gutxieneko erosketa bakoitzeko, bezeroek pegatina bat lortuko dute, eta pegatina horiekin lau zatiko puzzle bat osatu beharko dute. Erosketako tiketa edo tiketak HAZ bulegoan aurkeztu beharko dira eta 20 erosketa-karroren zozketan parte hartzeko aukera egongo da.

Martxan da Iurretako sanmigeletarako kartel lehiaketa

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Jai Batzordeak martxan ipini du San Migel jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa. Lanak ekainaren 20ra arte aurkeztu daitezke, Ibarretxe kultur etxean, beti ere beste lehiaketaren batean aurkeztu edo saritu bakoak. Gura den teknika erabili daiteke, eta *San Migel jaiak 2022 Iurreta-Irailaren 28tik urriaren 2ra* ipini behar du. Kartelak plazan egongo dira ikusgai, ekainaren 23an, eta botoa emateko aukera egongo da, 19:30etik 20:00etara. Botorik gehien jasotako hiru kartelen artean, Jai Batzordeak kartel irabazlea aukeratuko du. Kartelaren egileak 500 euro irabaziko ditu.

Iurretako eta Maiztegi eskolako 6tik 12 urtera arteko umeei zuzenduta ere antolatu dute lehiaketa. Hilaren 17ra arte aurkeztu daitezke lanak, eta kultur etxean ipiniko dituzte, ekainaren 20tik 23ra, botoa emateko. Irabazleak Hontza Extrem parkerako sarrera bi lortuko ditu.

Herrixen Jaixek sortu dute Zaldibarren, jai parte hartzaileen alde

Udalak Jai Batzordea "tramite hutserako" erabiltzen duela azpimarratu dute; Ernai "zentsuratzea" ere salatu dute

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Urte biko etenaldiaren ondoren, "ohiko eta behar diren moduko" jaiak berreskuratuko dituzte Zaldibarren. Hala ere, Zaldibarko Udalak bultzatzen duen eredua "ez parte hartzailea" dela eta Jai Batzordea "tramite hutserako" erabiltzen duela iritzita, Herrixen Jaixek sortu dute Zaldibarren; egitaraua auzolanean prestatzen dabiltzala azaldu dute. Zaldibarko Jendeak, Ernaik, Dominikak, Zaldibarko dantza taldeak, Guraso elkarteak, gaztetxeak, Castetek eta Ilargi argazki taldeak osatzen dute Herrixen Jaixek, eta "jai herrikoien alde lan egiten dutenek" ere badute lekua bertan. "Zer dira herriko jaiak herriko elkarteen artean sorturiko egitarau lana eta gozamena ez bada?", azaldu zuten Amaia Mendibe Mazorriagak eta Maddi Sanz Baigorrik martitzeneko aurkezpenean. Uztailaren 7tik 11ra bitartean ospatuko dituzte aurten Zaldibarko jaiak.

Ernairi zentsura

Horrez gainera, udalak Ernai antolakundea zentsuratzea gertakari "larria" dela salatu zuten aurkezpenean. "Udako kultur egitarautik zentsuratu zuten, eta aurten ere argi utzi dute zentsuratu egingo dutela", adierazi dute.

Dozenaka herritarrek parte hartu dute aurkezpenean.

Garaiko Beratu Azpikoa baserriko familiak basoa birsortuko du pinuak zeuden eremuan bertoko arbolak sartuta

Baso ustiapenagaz jarraitu barik, naturak hainbeste urtean emandakoa bueltatzeko modu bat topatu dute Lurgaia fundazioaren laguntzagaz. Gainerako herritarrak ere animatu dituzte

Bertoko espezietako 500 bat arbola sartu dituzte garai batean pinudia izandako eremuan.

GARAI • EKAITZ HERRERA

Antzina artasoroa izan zen. Azken lauzpabost hamarkadetan, pinudia. Eta, etorkizunean, bertako espezieekin berreskuratutako basoa izango da. Garaiko Beratu Azpikoa baserriko kideek berea izandakoa bueltatu gura diote naturari. Lurgaia fundazioaren laguntzagaz, 500 bat arbola eta zuhaixka sartu dituzte hektarea bateko arloan. Sagarrondoa, haritza, urkia, haltza, gorostia. Bertako espezieak guztiak. Idoia Lasa da Beratu Azpikoa baserriko familia osatzen duen kideetariko bat: "Baserriko lurrak osabak kudeatu izan ditu. Baina arlo horretan zeuden pinuak bota eta gero, osaba hil egin zen. Eta lur arlo horregaz zer egin ez genekiela geratu ginen", azaldu du. Lasak Euskadi Irratian izan zuen Lurgaia fundazioaren berri. Eurekin hartu-emanetan ipini zen, eta halantxik erabaki zuten familian basoa berreskuratzeko bide bat hastea. "Oso argi genuen eukaliptua ez genuela sartuko. Pinua berriro sartzeari ez genion zentzu askorik ikusten", azpimarratu du. Eta ikusirik familiako kide bakoitzak bere lanbideak zituela, bere diru-sarrerak, ez dute basoagaz dirua egiteko asmorik izan. "Niri basoa birsortzeko ideia hori oso interesgarria iruditu zitzaidan. Naturagazko kontzientzia hori izan dugu", dio.

Lasak ondo gogoan du apiril partean Lurgaiagaz egindako landaketa eguna. "Harrituta geratu ginen jendearen harreragaz. 70 bat boluntario etorri ziren gure arloan arbolak sartzera. Arrasatetik, Durangaldetik, Nafarroatik, Gasteiztik, Bilbotik, Kantabriatik", zehaztu du. "Oso pozik gaude harturiko erabakiagaz, eta gure egoera berean dagoen jendea animatuko nuke horrelako erabakiak hartzera. Lehen beste beharrizan batzuk zeuden, baina gaur egun bertako espezieen hazkundea bultzatzea dagokigu", amaitu du Lasak.

Pentsiodunen bizikleta martxa Durangaldetik pasatuko da

Bizikleta martxa Donostian hasiko da eta ekainaren 15ean, datorren eguaztenean, ailegatuko da eskualdera

DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak bizikleta martxa bat egingo du ekainaren 13tik 25era. Donostian hasi eta amaituko den martxak Euskal Herriko hainbat eskualde zeharkatuko du; tartean, Durangaldea. Datorren asteko eguazteneko etapa igaroko da eskualdetik. Hori dela eta, eskualdeko pentsiodunek hainbat ekitaldi antolatu dute. Ekainaren 15ean, berriztarrek Trabakuan bat egingo dute martxagaz, 11:00 inguruan. Herrigunean oinez ibiliko dira eta herriko adineko bat omenduko dute. Elorriarrak Miotan izango dituzte zain. Alkateak ongietorria egingo die 12:00etan. Ondoren, 12:30ean, Nizeto Urkizutik plaza nagusirainoko bidea oinez egingo dute. Gero, jubilatuen etxeko kanpoaldean bazkalduko dute. Pentsiodunak Jaizaleko txistulariek lagunduta sartuko dira Durangoko Ezkurdira. Kriskitin taldeak dantzak egingo du eta Kristina Mardarasek bertsoak abestuko ditu. Iurretan ere dantzak eta bertsoak egongo dira eta hainbat lagun omenduko dituzte, arratsaldean. Zornotzarrek 18:30ean egingo diote ongietorria. Musika, koplak, omenaldiak… egongo dira. Bizikleta martxakoek Zornoza abesbatzaren lokalean afaldu eta Ixerbekoa kiroldegian lo egingo dute. Biharamunean, 09:00etan ekingo diote laugarren etapari.

Durangaldeko pentsiodunek martitzenean egin zuten prentsaurrekoa Ezkurdin.

Durangoko Tabira auzoan San Pedro jaiak ospatuko dituzte ekainaren 19tik 29ra

Tabira jai batzordeak egitarau zabala antolatu du San Pedro jaiak ospatzeko

Tabirako jaietan ateratako argazkia.

DURANGO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Ekainaren 19tik 29ra San Pedro jaiak ospatuko dituzte Durangon, Tabira auzoan. Tabira jai batzordeak egitarau zabala antolatu du. Ekainaren 19an emango diete hasiera jaiei, Tabira mendi martxagaz, mendi lasterketagaz eta Eixuren artisau azokagaz. Txupinazoa ekainaren 24an izango da, eta, gero, tortilla jana eta kontzertuak egongo dira: Parkatu, Ainke, Banda Baffana, Peio eta Itsua, Sigeruban eta Pula Gzon. Bestalde, ekainaren 25ean spinning maratoia, marmitako txapelketa, gazteentzako jolasak eta Biziraun eta Gora Etorri taldeen kontzertuak egongo dira, besteak beste.

San Pedro egunean emango diete amaiera jaiei, amaierako txupinazoagaz.

Durangaldea asteon

Ekainaren 12an Andaluziako errozio jaia eta erromeria ospatuko dute Durangon

DURANGO | Durangoko andaluziarren kultur elkarteak antolatuta, domekan errozio jaia ospatuko dute Durangon. Elkarteak duen egoitzaren bueltan izango dira ekitaldiak. Denerik egongo da: runbak, sevillanak eta orotariko dantzak, besteak beste.

20 eta 27 urteko gazte bi ikertzen dabiltza Durangon, ustez droga trafikatzeagaitik

DURANGO | Ertzaintzak prentsa ohar bidez jakinarazi duenez, joan zen barikuan, susmoa hartuta, zaintza lanak egin zituzten Landakoko establezimendu batean, osasun publikoaren kontrako delitu bat egiten ari zirelakoan. Bertan, marihuana, haxixa eta kokaina topatu zituzten ezkutatuta. 20 urteko arduraduna eta 27 urteko jabea ikertzen dabiltza.

Zabaldu dute Muntsaratzeko merenderoaren ondoan dagoen pumptrack pista berria

ABADIÑO | Joan zen barikuan, Abadiñoko Udalak Muntsaratzeko merenderoaren ondoan dagoen pumptrack pista zabaldu zuen. Udaletik azaldu dutenez, pista prest dago bizikletak eta patineteak jasotzeko. Belargunea, baina, itxita dago, belarra hazi arte. Lanek 94.658 euroko aurrekontua izan dute.

Mallabiena auzoa irudikatzen duen margolana jaso du Iurretako Udalak

IURRETA | Mercedes Abajo Alberdiren familiak Mallabiena auzoa irudikatzen duen margolan bat eman dio Iurretako Udalari, dohaintzan. Huerta Zabalak 1975ean margotu zuen obra, eta Ibarretxe Kultur Etxean ipiniko dute ikugai, hilabete bian. Ondoren, Iurretako udaletxean ipiniko dute, behin betiko.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Politikan

Jesica Ruiz Perez
PSE-EE

Lehentasunak egon behar dira

Maiatzeko osoko bilkuran, 75.000 euroko gastua onartu zen, udalaren aurreko posta-eraikin zaharra eraberritzeko proiektua idazteko. Gaineratu behar da 2020an jada 15.000 €-ko aurreproiektu bat egin zela. Lurralde batzordean, gobernu taldeak ez zekien zein izango zen eraikin horren azken erabilgarritasuna, baina astebete geroago, prentsaren bidez jakin genuen dirudienez kultur etxe bat izango dela.

Hori definitzen duen proiektu zehatzik ez dagoenez, birmoldaketaren balorazioaren aurrekontua 1,12 milioi eurokoa izango da. Txosten teknikoak dioenez, eraikin hau balio historikorik eta arkitektonikorik gabea izateaz gain, antolamenduz kanpo dago eta ez dator bat Alde Zaharreko gainerakoarekin.

Egoera horren aurrean, PSEren proposamena, beti defendatu dugun bezala, eraikina eraistea da. 1,12 milioi euro horiekin, lehentasunezkotzat jotzen ditugun auzo-eskaerei aurre egitea proposatzen dugu, hala nola Alde Zaharreko lurzoru labainkorra hobetzea, Antso Estegiz kalea berriztatzea eta San Faustoko Kapitanena baserria eraberritzea. Gure herrian baditugu beren historia, arkitektura eta antolaketagatik mantendu behar ditugun eraikinak; esaterako, Garai Jauregia edo Murueta Torre etxea.

Benetan hau al da gobernu taldearentzat eraberritzeak lehentasuna duen eraikina? Edo, zerbait egingo dela dirudien lasterketa bat da, jakinda azkenean ez dela egingo? Denborak esango du.

AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA

MARGOTU

Margotu beheko irudia gurago duzun moduan.
Zenbat estralurtar ikusteko gai zara?

2022ko ekainaen 10a, barikua
anboto

DIFERENTZIAK

Topatu 7 diferentziak.

SUDOKUA



Kokatu beheko irudiak lauki zurietan.



ITZALAK

Zein itzal dagokio alboko irudiari?

1

2

3

4

OLINDA

MUSIKA **ELORRIO :: Ekainak 11, 18:00**

Sanba eta bossa nova doinuak, Olinda laukotearen eskutik

Brasilgo musika —sanba eta bossa nova doinuak— entzuteko aukera egongo da, zapatuan, ekainaren 11n, Elorrioko Ateneoan. Durangaldeko Olinda taldeak kontzertua joko du,18:00etan. Eva Acerok, Juanfer Gagok, Amaia Jaiok eta Eider Gallastegik osaturiko laukoteak jazz doinuak eta boleroak ere lantzen ditu, eta lan berria kaleratzea dute orain erronka.

Beste talde bik ere emango dute kontzertua, bihar, Ateneoan. Batetik, Trinity ahots hirukotearen musika proposamena entzuteko aukera izango dute bertaratutakoek. Bestetik, Gerri buelta on the rocks taldea ere igoko da oholtza gainera. Funky, blues eta pop doinuak ekarriko dituzte Ateneora, cabaret kutxuagaz.

Sarrera borondatezkoa izango da eta bilduriko dirua Olindaren lan berria finantzatzera bideratuko dute. Bizum bidez ere egin daiteke diru ekarpena 615 726 880 telefono zenbakira, 'Olinda diskoa' adierazita.

Ekainaren 10ean

ABADIÑO antzerkia
'Juicios sin prejuicios' (Banarte), 20:00etan Errota kultur etxean.

DURANGO irakurraldia
Irakurraldi girotua, 17:00etan, San Agustin kulturgunean.

ELORRIO musika
Joseba Irazoki eta lagunak, 22:30ean, Ateneoan.

IURRETA antzerkia
'Plast & Co' (Ttipia konpainia), 17:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

OTXANDIO Mekoletako jaiak
Txupina, 21:00etan.
Gazte afaria, 21:30ean.
Kontzertuak, 23:30ean:
MICE + Ziribulio Sound-All Stars + Dj Gaztetxekoa.

Ekainaren 11n

DURANGO jaialdia
Munduko Arrozen jaialdia, Ezkurdin.
Muntaketa, 09:00etan.
Batukandra, 11:00etan.
Dantzak, txaranga eta tailerrak, 12:00etan.
Bazkaria, 13:00etan.
Kontzertuak, 15:30etan:
Dana D'Capricho eta Beat Salad Records hip-hop kolektiboa.

DURANGO dantza
Kalejira eta dantza erakustaldia, 12:00etan, herriko kale eta plazetatik. Jaizale Durangaldeko txistulari elkarteak, Bartolome Ertzilla musika eskolako txistulariak eta Kriskitin dantza taldeak parte hartuko dute.

DURANGO dantza
Dantzaroa:
Sokadantza eta dantza poteoa txistulari, gaitero eta trikitilariekin, 13:00etan, Ezkurdi plazatik.
Erromeria, 17:00etan, Andra Mariko plazan. Miren, Roberto Etxebarria eta Idoia Markaida Bizkaiko Gaiteroak.
AIKO dantza taldea, 19:00etan.

DURANGO musika
Durango Hiria txistu kontzertua, 19:30ean, San Agustin kulturgunean.
Galandum Galundaina (Portugal) taldeak parte hartuko du.

ELORRIO musika
'Inor ez da ilegala' Hemendik Harantz elkartasun jaialdia, Elorrioko Gaztetxean.
'Migratzaile eta errefuxiatuen gaur egungo egoera Europan' berbaldia, 16:30ean.
Ttek Elektrotxaranga, 18.30ean.
Kontzertuak, 22:00etan:
Ezpalak + **Keike** + **Gora Etorri**.

IURRETA musika
Xabi Aburruzaga, 18:00etan, Orozketan. Ondoren, auzotarrekin luntx xumea.

OTXANDIO Mekoletako jaiak
San Bernabera ibilbidea plazatik, 09:30ean. Bertan, **mendi erromeria** 10:00etan, eta 12:30ean **meza eta luntxa**.
Urduri dantza taldea, 17:00etan.
Kalakan haur jolasak, 18:00etan.
Tapia ta Leturia wedding band, 19:30ean.
Bertso afaria: Erika Lagoma, Eneko Abasolo 'Abarkas', Unai Iturriaga eta Igor Elortza (txartelak Fondan, Txokoan eta Arkotxen). Ondoren, **erromeria Xabi Aburruzaga eta Josu Urrutiagaz.**

Ekainaren 12an

BERRIZ jaialdia
XV. Kulturarteko jaialdia, Legaño auzoan.
Dantzarien emanaldia, 12:00etan.
Henna, txirikorda eta Batikumba ikastaroa, 12:30ean.
Munduko janarien dastatzea, 13:30ean.
Batikumba ikuskizuna, 17:00etan.

DURANGO sari banaketa
Julene Azpeitia Lehiaketaren sari banaketa, 11:30ean, Kurutzesantun.

DURANGO musika
Jaizale Durangaldeko txistulari elkarteko eta Bartolome Ertzilla musika eskolako txistularien kalejira, 12:00etan, herriko kale eta plazetatik.
Sugarri fanfarrea, 12:00etan, Alde Zaharretik.

DURANGO jaialdia
Errozioko Jaia:
Ama Birjinaren irteera (Errozioko Salbea), 12:00etan.
Dantzen emanaldia, 12:15ean.
Ogi-mamiak eta gazpatxo dastatzea, 13:30ean.
Runba eta sevillanak, 14:00etan.
Ama Birjina gordetzea, 16:00etan.

OTXANDIO Mekoletako jaiak
Poteo musikatua, 13:00etan.
Briska eta Mus txapelketak, 17:00etan.

Ekainaren 15ean

IURRETA berbaldia
'Eta orain zer? Baso ustiapenari bueltaka', 19:00etan, Montoste elkartean. Hizlariak: Iñaki Etxebeste eta Markel Arriolabengoa, Errez Koop Elk. Txikiko kideak.

Ekainaren 16an

IURRETA aurkezpena
'Goiuria Ikastola. Auzolan miresgarri baten kronika' liburuaren aurkezpena, 19:00etan, Goiuria kulturgunean.

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Zinema

:: Durango
ZUGAZA ZINEMA

• ***Jurassic World: Dominion***
barikua 10: 19:30/21:00
zapatua 11: 17:00/20:00
domeka 12: 17:00/20:00
astelehena 13: 19:00
martitzena 14: 18:30/20:15
eguaztena 15: 19:00
eguena 16: 18:30

• ***La voluntaria***
barikua 10: 19:00
zapatua 11: 19:15
domeka 12: 19:15
astelehena 13: 18:00/20:15
martitzena 14: 18:00
eguaztena 15: 19:30
eguena 16: 18:30

• ***Tenor***
barikua 10: 19:00
zapatua 11: 19:15
domeka 12: 19:15
astelehena 13: 18:00/20:15
martitzena 14: 18:00
eguaztena 15: 19:30

:: Zornotza
ZORNOTZA ARETOA

• ***En otro lugar***
barikua 10: 20:00
zapatua 11: 20:00
domeka 12: 20:00
astelehena 13: 20:15

• ***Marmaduke***
zapatua 11: 17:00
domeka 12: 17:00

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera

Bidali alta

688 635 041

telefono zenbakira

* Izan zaitez berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak

anboto

“Orain beste modu batera funtzionatzen dugu eta abesti berrietan igartzen da hori”

Ainke! talde durangarrak gogotsu ekin dio ibilbideari; 'Eskuak beteta' abesti sorta kaleratu dute. Ekainaren 16an kontzertua eskainiko dute Durangoko Intxaurre elkartean

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

26:11 musika taldeko Gorka Cabello, Victor Durán eta Imanol Erdoiza kideek, gainerako taldekideekin alderatuta erritmo desberdinak zituztela ikusita, proiektu berriari ekitea erabaki zuten. Kontuari makina bat buelta eman eta gero —Talde Sorpresa izenagaz kontzertu bat barne—, talde berriari Ainke! izena ipintzea erabaki zuten. Hirukote modura hasi eta gero, Paul Bengoetxea batu zaie orain, baxua jotzen. Kontzertu bi dituzte lotuta ekainerako, eta aurrerago ere kontzertu gehiago jotzeko aukera edukitzea gura lukete. 'Eskuak beteta' deitzen den EPa ipini dute sarean oraintsu.

26:11 taldean elkarregaz jotzen zenuten.

Gorka Cabello: Nahiko naturala izan zen guztia, norabide desberdinak genituen eta.

Imanol Erdoiza: Sinplea izan zen, guk entseatu egin gura genuen, ahalik eta gehien. Horregaitik izan zen naturala. Garraioren —Gorka Cabelloren bakarkako proiektua— abestiak jotzeko geratu ginen, eta zeozer desberdina irten zela ikusi genuen.

Victor Durán: Hasieran, abesti bi egiten genituen entseguko. Kontuan hartu behar da talde gaztea garela, otsail aldera hasi ginen honegaz. Asko entseatzeari eskerrak egin daiteke hori. 26:11ren azken entseguetan Paul ere agertu zen; gero, Erasmus programan joan zen, eta orain, bueltan dela, berriro probatzen gabiltza.

Asko entseatzea igarriko duzue.

V.D.: Bai, eta, gainera, asko sinplifikatu dugu guztia, bai konposatzerakoan, baita bestela ere. Horrez gainera, Gorka beti dago idazten, eta, beraz, abestiak nahiko erraz borobiltzen ditugu. Ez dakit zein izan den aldaketa, aurreko konposatzaile eurak garelako berez, baina, orain, asmatu dugulakoan gaude.

Paul Bengoetxea: Heldu nintzenean hartu-emon itzela zutela ikusi nuen, elkarregaz zein ondo konpontzen diren ikusteak harritu ninduen.

'Eskuak beteta' lanean ez duzue publikatu sortutako material guztia.

G.C.: Ez, baliabideengaitik neurri batean. Dena zuzenean grabatu dugu oraingoan, lokalean bertan. Sortuta ditugun beste kantak zatika grabatu gura ditugu, eta horrek denbora asko eskatzen du.

I.E.: Grabazio honetan Parkatu taldeko Beñaten laguntza izan dugu. Materiala utzi digu eta lagundu egin digu; bera barik gatxagoa izango litzateke. Abesti berriek soinu indartsuagoa izan dezaketela uste dugu, eta beste modu batera probatu gura dugu horretarako, zatika grabatuta, edo estudio batean. Ez dakigu, eta oraindino ez dugu erabaki. Dugun egoera ekonomikoa ere ez da oso ona (barrez).

Zelan definituko zenukete egiten duzuen musika?

V. D.: Uste dugu abesti berriek indar gehiago dutela, eta detaile gehiago ere bai. Beste modu batera funtzionatzen dugu eta abestietan ere igartzen da hori. Errepikak ere itsaskorragoak dira, lehenago harrapatzen dira. Lehen, beharbada, lotsa moduko bat genuen sortzerakoan, musika orokorragoa zen, zelanbait esatearren. Orain, asmo bat dugu, egin gura duguna egiten dugu.

I.E.: Grabatzeko, arrazoi bi genituen batez ere. Alde batetik, zelako soinua ateratzen genuen ikusi gura genuen. Bestalde, aurkezpenerako materiala ere badira grabazioak. Victorrek esandakoagaz lotuta, azken abestiak indartsuak dira, bai.

G.C.: Lehenengo EPa ikasketa prozesu bat izan zen, eta oraingoan esan genezake norabide bat dugula. Lehen gehiago zen 'egin dezagun zeozer ea zer irteten den', eta orain, ostera, gehiago da 'hau egin gura dugu, goazen bilatzera zelan egin dezakegun'.

> ***Ekainaren 24an Durangoko hainbat musikarigaz joko dugu Tabirako jaietan***

V. D.: Lehen, beharbada, etxetik ia abesti osoak ekartzen genituen, eta orain beste modu batera lan egiten dugu. Lokalera ideia bat ekarri eta bertan lantzen dugu, denok egiten ditugu ekarpenak. Eta hor magia bat sortzen da.

I. E.: Orokortzearren, Gorka popzalea da, Victor metalzalea eta ni punkzalea. Bakoitzaren influentziak desberdinak dira, eta elkarregaz jotzean horrek elkar osatzen du. Bakoitzaren ekarpenak desberdinak dira eta igartzen da.

Baduzue kontzerturik jotzeko asmorik?

I. E.: Ekainaren 16an Durangoko Intxaurre elkartean joko dugu, EguenEro zikloaren barruan. Horrez gainera, ekainaren 24an Durangoko beste hainbat musikarigaz batera joko dugu, Tabirako jaietan. Banda Baffanagaz eta Peio eta Itsuagaz, besteak beste. Udan ez dakigu zer gehiago etorriko den, baina gu geu oso gogotsu gaude. Aurretik, Iurretako Abadetxe gaztetxean eta Durangoko Sorginola gaztetxean jo dugu.

Garraio taldearen diskoa udarako kaleratzeko asmoa

Gorka Cabello hamar urtegaz hasi zen gitarra jotzen, eta gitarra elektrikoa jotzen hasteagaz batera hasi zen abestiak sortzen. 26:11 edo Ainke taldeetan tokirik ez duten doinuak batzen ditu Garraion. "Bestelako doinuak probatzeko aukera eskaintzen dit proiektu honek", azaldu du Cabellok. Arte Ederretako ikasketak amaitzen dabil durangarra, eta Gradu Amaierako Lana du Garraio. "Instrumentu guztiak neuk jotzen ditut, eta, hain zuzen ere, instrumentu bakoitzaren atzean egotea zer zen sentitu gura nuen; zelan idatzi bateria zatiak, edo baxu zatiak; horixe egin gura nuen", gaineratu du. Abesti solteak kaleratu ditu orain arte, eta orain disko osoa kaleratzeko asmoa du.

2019an Plateruenean egindako Hitzez eta Ahotsezen edizioko argazkia.

Ehun parte hartzailetik gora Hitzez eta Ahotsez kultur ekimenean

San Agustin kultur gunean sarrera librea izango dela azaldu dute antolatzaileek

LITERATURA • JONE GUENETXEA

Hitzez eta Ahotsezen edizio berriko gaia Ametsa izango da. Ardatz horren inguruan 100 parte hartzailetik gora jolastuko dira gaur, ekainak 10, San Agustin kultur gunean. Eurek aukeratu edo sorturiko testuak irakurriko dituzte oholtzara igoko direnek. Horrez gainera, bertsoak eta musika ere uztartuko dituzte. Urtero legez, denerik egongo da: bertako idazleak, bertakotuak, itzulitakoak, garaikideak, antzinakoak...

Irakurraldia 17:00etan hasiko dute, txalaparta doinuekin. Antzerkilariek, musikariek eta dantzariek ere lekua izango dute, euskarazko literaturaren piezak taula gainean erakusten. Besteak beste, Eneko Abasolo 'Abarkas'-ek bertsotan egingo du, eta Txomin Bengoak abestu egingo du. Unai Iturriagak, Igor Elortzak eta Beñat Gaztelu-Urrutiak osaturiko hirukoteak ere musikagaz girotuko du saioa, Erika Lagomak koplak abestuko ditu eta Karrika taldeak antzerkiaren bitartez ametsen inguruan gogoeta egingo du. Luhartz musika taldeak emango dio amaiera ekitaldiari.

Irakurraldia 17:00etan hasiko dute, txalaparta doinuekin, San Agustin kultur gunean

San Agustineko oholtzan

Bigarren urtez, ekimena San Agustin kultur gunean izango da. Antolatzaileek azaldu dutenez, sarrera librea izango da.

Abel Iriondo dantzaria omenduko dute zapatuan

Aiko dantza taldeak egun osorako egitaraua antolatu du

DANTZA • ARITZ MALDONADO

Aiko dantza taldeak Abel Iriondo dantza kidea "patxadaz" agurtzeko omenaldia antolatu du ekainaren 11rako. "Behar eta merezi dugu dantzara bueltatzea, eta, horregaz batera, bere garaian agindu genuen moduan, Abel Iriondo gure lagun kutunari patxadaz agur esatea, gure omenaldirik zintzoena adieraztea eta beragaz kantatzea eta dantzatzea". Egunari hasiera emateko, soka dantza eta dantzapoteoa egingo dituzte, Ezkurdi plazan hasita, txistulari, trikitilari eta gaiteroekin. Ostean, 15:00etan, bazkari herrikoia egingo dute, Andra Mariko elizpean (txartelak Saltsanen erosi daitezke).16:00etan 'Abel gogoan' ekitaldia egingo dute, eta, gero, Miren, Roberto Etxebarria eta Idoia Markaidaren, Bizkaiko Gaiteroen eta Aiko taldearen emanaldiak egongo dira. 22:00etan emango diote amaiera omenaldiari, Manolo Escobarren *Mi carro* abestiagaz.

Abel Iriondo Aikoko ekitaldi batean.

Gai librean

Post

Izenak eraikitzen omen digu izana. Post industrialak izan gara. Post modernoak ere bai. Orain post pandemikoak. Bai izenez bai izanez. Laburbilduz, post-gara, izatez. Zabortegien antzekoak garenez, barneak arakatzen hasiz gero, etortzen dira komediak. Arakatu ezean, tragikomediak.

Anbotoko zutabegileen arteko ezezkorrenari saria neure buruari eman diot urterik urte. Azkenaldion, baina, gertutik jarraika dabilzkit batzuk. Eta bizitzako beste eremu batzuetan bezalaxe, esango nuke haserreak, errietak, ezezkoak eta begirada trabesak ugaritu egin direla.

Neure buruari agindu diot: idatz dezadan testu baikorra. Nondik hasi, ordea? Lotsagarria litzateke, eta ez dut egingo, Google edo Wikipedian "baikortasuna" bilatu eta hari horiek hartzen duten bidezidorretan zehar jostaketan aritzea. Ez dut egingo; ze lotsa! Pentsalariaren prestigioa. Besterik ez baitugu irabazten. Barkatuko didazue txantxa.

Josune Aranguren Zatika
Filosofoa

Kontua da nekagarria dela post izatea. Mila egoeraren post izateak pentsarazten digu gainontzekoek gure jokabidea hobeto ulertuko dutela. Horretarako, lan bat aurkeztean, norbait agurtzean edota edozein aukera nimiñotan, horra botatzen dugu: "medikutan ibili naiz eta", "ama zaindu behar dudanez", "ikasturte amaierak, badakizu nolakoak diren", "eginbehar hauek niretzako berriak izatean", … Post izateak babesten gaitu, justifikatu egiten gaitu. Eta gaixotu ere bai. Post izaeraz gaixotzen gara. Birus horren aurka ere alperrik txertoak. Kutsatu eta listo.

Garaiek haize berriak ekar ditzakete. Atea zabaltzea, besterik ez dugu egin behar. Atea? Burua? Pentsamoldea? Bizimodua? Balioak, arauak, normatibitatea? Ene! Noraino. Itxi atea, mesedez.

Laster testu hau bera ere post berri bat izango da nire blogean. Post-aren post osteko esanahi berriak. Nahiko nuke eraikitzeko sasoi honetan (aktibitatea bueltan baitator), inertziari erabakitzen utzi beharrean, elkartasunaz, indibidualismoaz eta askatasunaz egin ditugun gogoetetan oinarri hartu dezagun. Gaur bertan entzun dut oraindik aurrera gure jokabidea gidatzeko honako lau zutabe hauen gainean eraikitzeko gomendioa: apaltasuna, errukia, erantzukizuna eta errespetua. Ez dakit egokienak diren. Ez dut uste, sikieran, "egoki" eta "desegokiak" badirenik. Baina, beno, nonbaitetik hasi beharra dago. Hor ezarri ahal dugu pre-a. Hala egiten badugu, izatea dauka halako ondoriora heldu garelako, bizipenek, eztabaidek eta gogoetek kontzienteki erabaki dutelako bide hori eraikitzea. Beste behin ere, *sapere aude*: eraikin berriaren zutabe bakarra baina sendoena.

http://josunearanguren.blogspot.com/

Durangaldeko lau talde arituko dira WOP Challenge proban, zapatuan

Zornotzako, Abadiñoko, Elorrioko eta Durangoko talde banak parte hartuko dute 226 kilometro dituen errelebokako proban; zapatu arratsaldetik domekara, 19 etapa izango dituen ibilbidea egingo dute

KORRIKA • JOSEBA DERTEANO

Asteburu honetan, Wop Challenge erronkaren beste edizio bat egingo dute. Hamar-hamabi laguneko taldeek erreleboka egingo dituzte probako 19 etapak, 226 kilometro korrika. Lasterketak Bizkaia zeharkatuko du eta Bilbon amaituko da. 57 taldek parte hartuko dute eta euretariko lau Durangaldekoak dira. Erronkaren aurrean gogotsu daude.

Iaz lehia sanoa izan zuten herri bereko talde bik: Motozain eta Taberna Zarra taldeek. Aurten jende gutxiago dutenez, indarrak batu dituzte eta Motozain izenagaz arituko dira. Hamabi laguneko taldetik hiru edo lau berriak dira. Aldaketak aldaketa, iazko mailan aritzea dute helburu, Jon Mendizabal taldekidearen esanetan.

Kortesia taldea Zornotzako sei lagunek, Mungiako bik, eta Larrabetzuko eta Arrasateko banak osatzen dute, eta badakite Wop Challenge amaitzea zer den. Batzuek ultratrailak egiten dituzte, beste batzuek trailak... "Orokorrean, kirolagazko eta mendiagazko pasioa dugun lagun talde bat gara", dio Jesus Bodas taldekideak. Bodasek berak 15 urte daramatza mendiko bizikletako probetan, eta 6 trailetan. Taldeka, bizikleta gainean ere aritu izan dira erreleboka, orain lau urte Donostia-Bartzelona Powerade proba egin zuten eta. Eskualdeko gainerako talde biak berriak dira eta ez dute esperientziarik proba honetan. Elorrioko Bikale Taberna taldea da euretariko bat. "Iaz lasterketa honetan giro itzela zegoela ikusi genuen eta orduan sortu zitzaigun parte hartzeko ideia", adierazi du Itsasne Larruskain taldekideak. Zenbait kuadrillatako lagunak batu dira, batzuk kirolariak eta beste batzuk kirolari izandakoak. "Parte hartzea eta esperientzia on bat bizitzea da gure helburua", Larruskainen esanetan.

Laugarren taldea, Tabirako Baqué, saskibaloi klubeko entrenatzaileek, jokalariek, jokalari ohiek eta Hilario Pérez presidenteak osatzen dute. Joseba Arkarazo entrenatzailearen ekimenari eskerrak sortu da taldea, eta bera da sustatzaile nagusia. "Gure helburua amaitzea eta ondo pasatzea da", adierazi du Ainhoa Baqué taldekideak.

Beste sei taldetan ere eskualdeko kideak arituko dira, nahiz eta ez diren hemengo taldeak, antolatzaileek emandako datuen arabera.

WOP Challenge Erronka WOP proiektuaren barruko egitasmoa da. Batzen duten dirua gaixotasun neurodegeneratiboetara bideratzen dute.

1- Kortesia; 2- Tabirako Baqué; 3- Motozain taldea, iaz; argazkiko batzuek parte hartuko dute aurten.

Finaleko protagonistak Mallabian, astelehenean egindako pilota aukeraketan.

Morgaetxebarriak Biharko Izarrak txapelketako finala jokatuko du profesionaletan debutatu aurretik

Zornotzako pilotariak gaur, 19:00etan, jokatuko du binakako finala Mallabiko pilotalekuan

PILOTA • J.D.

Aimar Morgaetxebarriak (Zornotza, 2002) Biharko Izarrak txapelketako finala jokatuko du gaur, 19:00etan hasiko den jaialdian. Josu Igoa aurrelari nafarrak eta biek Hodei Exposito hernaniarra eta Martxel Iztueta tolosarra izango dituzte kontrario.

Afizionatu mailako bidea Biharko Izarrakeko txapel prestigiotsuagaz amaitu dezake atzelari zornotzarrak, laster profesionaletan debutatuko du-eta, uztailaren 16an, bere sorterrian, Zornotzan. Buruz buruko txapelduna izango du aurrelari, Unai Laso, eta Mikel Urrutikoetxearen eta Iker Elizegiren aurka jokatuko dute.

Baina Mallabiko txapela garesti dago, aurkariek ere maila handia dute eta. Esaterako, Morgaetxebarriak etorkizuneko promesarik handienetarikoa izango du parez pare atzeko koadroetan. Bigarren urteko jubenila den arren, Iztuetak sekulako maila erakutsi du orain arte.

Binakakoaren aurretik, Amaia Aldaik eta Olatz Arrizabalagak lau t'erdiko finala jokatuko dute. Biharko Izarrak txapelketaren barruan, aurten emakumeen txapelketa antolatu dute, lehenengoz. Antolatzaileen esanetan, emakumeena ere urtero antolatzea da asmoa aurrerantzean, geroago eta pilotari gehiagogaz. Aurten lau aritu dira.

DRTk Tabirra Garagardo Azoka egingo du ekainaren 16tik 19ra, Landako Gunean

Errugbi taldeko arduradunek eta udal ordezkariek datorren asterako antolatu duten ekimenaren aurkezpena egin dute

ERRUGBIA • JOSEBA DERTEANO

Durango Rugby Taldeak (DRT) garagardo azoka antolatu du ekainaren 16tik 19rako, Durangoko Landako Gunean. Ekimen berriari Tabirra izena ipini diote eta Durangoko Udalaren eta La Salve garagardo enpresaren laguntza du.

DRTko aurreko zuzendaritzatik dator ideia. Pandemiak asmoa geratu egin zuen eta orain, egoera hobetu denean, ekimena berrartzea erabaki dute. "Errugbi kluba gara, baina taberna bat ere badugu eta ostalari ere sentitzen gara. Durangori beste ekimen bat eskaini geniezaiokeela sentitzen genuen", adierazi du klubeko Iker Mendietak ekimeneko aurkezpenean.

Sarrera doakoa da. Dirua fitxengaitik aldatuko da sarreran, eta fitxa horiekin ordainduko da garagardoa

DRTko eta Durangoko Udaleko arduradunak astelehenean, ekimenaren aurkezpenean.

Tabirra datorren asteko eguenetik domekara egongo da zabalik, Landako Guneko lehenengo moduluan; hau da, aurreko aldean. Hamar bat metroko luzerako barra bi egongo dira, bakoitza alde batean. Barra bakoitzean hamar bat garagardo-banagailu egongo dira, askotariko La Salve garagardo motekin. Alkoholik bako garagardoa eta garagardo artisauak ere egongo dira. Sarrera doakoa da. Dirua fitxengaitik aldatuko da sarreran, eta fitxa horiekin ordainduko da garagardoa. Barretako txanda guztiak boluntarioekin beteko dituzte.

Food Truck bat ere egongo da, Gesalagaren eskutik; kroketak eta hanburgesa txikiak salduko dituzte, besteak beste. Barra bien artean, mahaiak eta aulkiak egongo dira, lasai eta jesarrita egoteko.

Ekimen berria urteroko bihurtu gura dute eta urterik urtera eskaintza handitzen eta hobetzen joatea da helburua.

Durangoko Udaleko Ane Abanzabalegik errugbi kluba zoriondu du egiten duen lanagaitik. "Durangori asko eskaintzen diozue eta seguru etorkizunean ere eskaintzen jarraituko duzuela", adierazi du.

Gernikako martxa zikloturistan Eneritz Iturriaga omenduko dute zapatuan

TXIRRINDULARITZA • J.D.

Gernikako Aixerrotape Zikloturista Elkarteak Oiz Erronka martxaren 12. aldia antolatu du zapaturako. Hiru martxa daude aukeran: 162, 128 eta 72 kilometrokoak. Urtero txirrindulari bat omentzen dute proba hasi aurretik eta aurten Eneritz Iturriaga Mazaga txirrindulari ohi abadiñarra omenduko dute. Besteak beste, lore sorta bat emango diote eta dantzari batek *Agurra* dantzatuko dio. "Eneritz Iturriagak ibilbide luze eta oparoa izan zuen eta emakumeen txirrindularitza sustatzen lagundu zuen. Hori guztia errekonozitu gura diogu", adierazi dute Aixerrotapeko arduradunek. Gainera, Iturriagak distantzia erdiko proban parte hartuko du.

Bere ibilbide oparoa eta nesken txirrindularitza sustatzen egindako lana aintzatetsiko dizkiote

Omenaldiaz gainera, Gernikako martxak beste lotura bat ere badu eskualdeagaz. Izan ere, 2019tik Oiz mendatetik igarotzen dira martxan.

Jokaldia

10 urte azken munduko txapelketatik

Bai, erraz esaten da. Hamar urte joan dira txirrindularitza utzi nuenetik. 2012an parte hartu nuen azkenengoz munduko txapelketa batean, bizikleta eskegi aurretik. Oroitzapen horiek guztiak nire bihotz barru-barruan gordeta daude eta noizerik behin azaleratu egiten dira, zutaz akordatu eta omenaldi bat egiten dizutenean.

Hamarkada honetan, nire bizitza guztiz aldatu da. Bai pentsatzeko moduan, bai fisiko mailan eta baita zimur kantitatean ere! Orduan, argi neukan nire kirol profesionala amaitu gura nuela, mentalki ezin nuelako gehiago: presioagatik, alderdi fisikoagatik eta baita injustizia asko bizi izan nituelako ere. Nahiko nazkatuta amaitu nuen arlo horrekin, nahiz eta bizitzako balore asko erakusteko eta mentalki indartsuago egiteko balio izan zidan. Begira, gaur, goizero moduan, irakurketa edo bideo hezitzaileak entzuten ibili naiz, eta bertan zera esan dute: 'Porrota arrakastarako bidean dago'. Porrota nahitaez pasatu behar den zerbait da, gora heltzeko. Eta bide horretan nago oraintxe bertan, nire bizimodua berbideratzen, txirrindularitzan nik pasa izan nituen injustiziei aurre egiteko eta besteek injustizia horiek igaro ez ditzaten lanean, eta baita umeei bizikletaren bidez balore garrantzitsuak erakusten ere. Zeren eta ona den lider batek taldeko kide bakoitzak duen onena ateratzen jakin behar du. Beraz, nire ustez, besteei laguntzean, besteei on egitean, orduan heltzen zara benetako lidertzara, benetako lider izatera.

Eneritz Iturriaga Mazaga
Txirrindulari ohia

Argi neukan nire kirol profesionala amaitu gura nuela, mentalki ezin nuelako gehiago

Besteei laguntzean, besteei on egitean, orduan heltzen zara benetako lider izatera

Hamar urte hauetan, jende asko pasatu da nire eskuetatik eta aurrerantzean ere pasatuko dira, eta nik nire filosofia oso argi daukat. Baina gauzatxo bat argi utzi nahi dut. Utzi errua besteei botatzeari eta barrura begiratu, zer daukagun eta zer garen. Egunero gure barruan egindako aldaketa txikiekin ikusiko dugu zelan berreskuratzen dugun apurka gure nortasuna, eta, konstantzia bidelagun dugula, zelan helduko garen nahi dugun helmugara. Gure eskuetan daukagu mundua.

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

Etxebizitza kapritxosoa.
Berriztatua. 2 logela, komuna, sukadlea eta egongela.
133.000€ C.E.E=F

80m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Argitsua.
110.000€ C.E.E=E

117 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handiak. Terraza. Ganbara eta garaje itxia.
C.E.E=F 292.000€

35 m²-ko baxua terrazarekin. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. 3 logela eta 2 komun. Ganbara handia. Garaje itxia.
228.000 € C.E.E=F

Eguzkitsua. Ikuspegiak. Etxe osoak kanpora ematen du. 3 logela, komun, sukaldea, despentsa eta egongela. 2 terraza. 7,30 m²ko ganbara. Garajea aukeran.
142.000 € C.E.E= F

Iurretako udaletxearen ondoan. 3 logela eta 2 komun. Baxuak lorategiarekin. Terrazarekin. Trastelekua eta garajea.
232.000 €-tik aurrera

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Aramotz auzunea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Prezio ezin hobea.

DURANGO: Pablo Pedro Astarloa. Pisu berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea jantokiagaz eta egongela.

DURANGO: San Fausto. 3 logela. Guztiz berriztatua. Bizitzera sartzeko moduan. **128.000 €**.

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

ABADIÑO

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria

ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarrizko baserria salgai. 40.000 m2-ko lur saila. Berriztatzeko.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m2-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzeko.

//BULEGOAK ALOKAIRUAN

ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA ALOKAIRUAN

BERRIZ: Eitua industrialdea. 800 m2-ko pabilioia. Aldagelak, komuna eta ofizinekin.

MATIENA: 460 m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

ISD AEPI 214
Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

www.inmoduranguesado.com



ASKATASUN ETORBIDEA: Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Etxebizitza altua. Etxe osoak kanpora ematen du. (Hegoaiparraldea) Herriko irteeratik gertu, zonalde berdeak, zonalde lasaia. Egoera onean. 4,48 m²-ko ganbara barne.
235.000€ C.E.E:E



ARTIA: 35 m²-ko terraza. Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia eta terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. Zonalde lasaia. Garaje itxia eta ganbara. Bizitzera sartzeko moduan.
228.000€ C.E.E:F



BIXENTE KAPANAGA: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du. (Hegoaldea). Egoera onean. Leku onean kokatua, erdigunetik gertu. 10 m²-ko ganbara. Berogailua eta ur beroa, elektrikoak.
C.E.E:Bidean 190.000€



MARTXOAREN 8KO: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, komuna eta eskegitokia. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (Ipar-hegoaldea). Etxebizitza altua. Argitsua. Ikuspegi ederrak. Berdeguneetatik gertu, eta herriko sarrera/irteera bat ere hurbil dago. 6 m2-ko trastelekua. 11,47 m²-ko garajea. EZIN HOBEA.
249.000 € C.E.E:D

ASTEPE: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta eskegitokia eta galeria. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. (Hego-mendebaldea). Leku onean kokatua. Garajea eta 6 m²-ko trastelekua. Argitsua. Ikuspegi onak.
249.000 € C.E.E: Bidean



TRAÑAETXOSTE: Egongela, sukalde jantzia (berriztatua), 3 logela eta komuna (berriztatua) eta despentsa. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du (Ekialdea) Leku onean kokatua. Aparkalekua. 4 m²-ko ganbara. ITE oraintsu pasatutakoa. Bizitzera sartzeko moduan.
C.E.E:E. 124.000 €

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behea • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

//DURANGO

ARAMOTZ AUZUNEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **125.000 € / E.E.Z=G**

ARTEKALE KALEA: Logela, sukalde-egongela eta komuna. Igogailua. **150.000 € / E.E.Z=F**

ANTSO EZTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela, eta komuna. Balkoia. Ganbara eta igogailua. **160.000 € / E.E.Z=G**

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z.=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **280.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

KOMENTU KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Ganbara eta garaje itxia. **230.000 € / E.E.Z=E**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

//ABADIÑO

MUNTSARATZ AUZOA: Baserria. 2.750 m²-ko lur sailarekin. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara eta balkoia. **390.000 € / E.E.Z=D**

//BERRIZ

BERRIZBEITIA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **LEHEN 120.000 € ORAIN 105.000€ / E.E.Z=F**

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitzeko baserria lurzoruagaz. **290.000 €**

PADURE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. **125.000 € / E.E.Z=F**

//IURRETA

DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000 €/ E.E.Z=E**

//IZURTZA

ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

//MATIENA

TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. Ganbara. **175.000 € / E.E.Z=E**

//OTXANDIO

GONBILAZ AUZOA: Baserria. 5 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Lursailagaz. **420.000 € / E.E.Z= BIDEAN.**

//ALOKAGAI

Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.

//GARAJEAK SALGAI

Durangon eta Iurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuagaz.

//BERRIAK

DURANGO

TRENBIDE KALEA: 5 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **175.000 € / E.E.Z=F**

Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak
· Anboto paperean + anboto.org-n: 100€
(Anboto txartela dutenentzat 90€)
· Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
· Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak

BARIKUA, 10 · 09:00-09:00

SARRIA SASIKOA 17, DURANGO

RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 11 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA MURUETATORRE 2C - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-13:30

CAMPILLO MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

UNAMUNZAGA MURUETATORRE 2C - DURANGO

SARRIA SASIKOA 17, DURANGO

GAZTELUMENDI J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO

BALENCIAGA EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

DE DIEGO INTXAURRONDO 22. - DURANGO

BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

RUIZ, JUAN EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

MELERO, ROSA MARI SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, IBAN TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 12 · 09:00-09:00

CAMPILLO MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 13 · 09:00-09:00

IRIGOIEN BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 14 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 15 · 09:00-09:00

BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 -

ZORNOTZAIRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

EGUENA, 16 · 09:00-09:00

DE DIEGO INTXAURRONDO 22. - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.**
Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Ui ui ui... heldu da zenbakixe aldatzeko momentue! Zorionak, **Amaiur**, eta mosu handi-handi bat! 30ak ezin die geldittu juerga on bataz zelebrau barik!

Zorionak, **Susana**, zure ingurukoen partez. Ospatu merezi duzun moduan.

Gure unibertsoko izar politenentzako milaka mosu eta besarkada potoloak etxekuen partez. Segi urte askotan horren distiratsu. Gora bihotzak!

Zorionak, **Jakes**! Zortzi urte bete ditu gure etxeko artistak. Jarraitu bizipoz horregaz! Mosu potolo bat maite zaitugun guztion partez.

Zorionak eta ondo pasa zure eguna, urte askotarako! Ez ahaztu pastelak eta cava!

Zorionak, **Iker** eta **Joseba**! Besarkada handi bat denon partez. Urte askotarako.

Zorionak, **Arantza**! Ondo pasa zure eguna eta urte askotarako. A! Eta ez ahaztu pastelak eta cava.

Eguraldia

ZAPATUA 26° / 15°	ASTELEHENA 27° / 16°	EGUAZTENA 27° / 17°
DOMEKA 26° / 16°	MARTITZENA 31° / 16°	EGUENA 26° / 16°

clínicadental hortzklinika
b. unamunzaga e.etxebarria
RPS: 145-13
Azken asteetako moduan, larrialdietan artatzen jarraitzen dugu, baina eguneroko pazienteak ere lehenbailehen artatzen hastea espero dugu, osasun agintarien baimena jaso bezain laster.
{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

"Lihoak lotura estua du gure historiagaz eta gure tradizioekin"

Olga Uribe durangarra lihoan espezializaturiko ehulea da. Ibarrurin duen baserrian tamaina handiko 10 ehungailu ditu, eta beste horrenbeste txiki, gehienak aitagaz batera egindakoak

Olga Uribe Salaberria
Ehulea
DURANGO | 1958

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Olga Uribek 25 urtegaz eskatu zuen lehenengo ehungailua, Zornotzako artisau azokan Sierra de Cameroseko (Errioxa) artisau bikote bat ehungailu bategaz lanean ikusi ondoren. Bat-bateko maitemina lakoa sentitu zuela dio, eta astebete egin zuen haiekin Errioxan. Harrezkero, geratu barik ikasten jarraitu du. Autodidakta izan da eta askotariko oihaletan oinarrituta atera ditu teknikak. Zetagaz, kotoiagaz eta artileagaz lan egin duen arren, lihoan espezializatu da. Zamua izenpean enkarguz lan egiten du. Betiko bezeroak ditu eta, batez ere, oparitarako piezak egiten ditu: kutxen gainerako oihalak, zamuak (hileta eta bataioetan erabiltzen zen oihala), mahai-tapizak...

Lihoan espezializaturiko ehule bakarrenetarikoa zara, ezta?

Bai, Bizkaian bakarra naiz. Bilboko Euskal Museoan dauden antzinako lihozko oihalen lehenengo kopiak neureak dira. Orain 15 urte hasi nintzen lihozko oihaletako antzinako teknika aztertzen, eta hori berreskuratzea lortu nuen. Proba mordoa egin ondoren, oihal horien erreproduzioak egiteko ehungailu bat ere egin genuen, Europako iparraldean erabiltzen diren ehungailuetan oinarrituta. Asko gustatzen zait teknika. Lihoak lotura estua du gure historia eta tradizioekin, eta hari horretatik tiraka mordoa ikasi dut.

> ***Orain 15 urte hasi nintzen lihozko oihaletan erabilitako teknika aztertzen, eta hori berreskuratzea lortu nuen***

Lihozko ehuna antzinakoenetarikoa da, Euskal Herrian asko erabili dena; adibidez, ezkontza-apaingarrietan.

Bai, eta Durango oso garrantzitsua izan zen lihozko oihalen produkzioan. Durangoko oihaldunen aurre-ordenantzak izan ziren Errege Katolikoek sinaturiko penintsulako lehenengoak, 1594an. Tradizio handia egon da, baina guztiz galdu da. Belaunaldi berrientzat guztiz ezezaguna da eta ezagutzen ez denak balioa galtzen du. Ezjakintasun horrek pieza asko galtzea ekarri du. Horregaitik, etxe edo baserrietan agerturiko antzinako oihalak bota beharrean, museoetara eroatera animatu gura dut jendea. Niri ere ekarri dizkidate batzuk eta erreprodukzioak egin ditut. Lihoa eta horregaz loturiko artisau lana berreskuratzea da nire helburua, galdu ez dadin. Ia 200 urte dituen ehungailu bat ere badut gordeta, eta lihoa prozesatzeko behar zen tresneria guztia. Egunen batean nonbaiten erakustea dut amets.

> ***Lihoak lan handia eskatzen du eta garestia da. Antzina, familia batek zuen boterearen erakuslea zen lihoa***

Gaur egun lihoa ia ez da erabiltzen.

Lihoak lan handia eskatzen du eta garestia da. Antzina, familia batek zuen boterearen erakuslea zen. Artileagaz batera lihoa erabiltzen zen batez ere, kotoia sartu zen arte. Lihoak prozesu luzea eskatzen zuen, astuna, eta kotoiak ez; merkeagoa zen, gainera.

Baduzu proiektu berririk esku artean?

Iaz Ekuadorren egon nintzen, hango ehule batzuekin, eta hainbat argazkigaz eta konpromiso sendo bategaz etorri nintzen: hango oihalak aztertzea eta katalogo bat sortzea, hango kultura eta oihalen tradizioa galdu ez daitezen. Perura ere joan gura nuke, hango oihalak aztertzera.

Ehungailu bat erabiltzea ez da lan erraza izango.

Ez da erraza, ez. Denbora behar da. Ehuntzea oso lan zehatza da, pazientziagaz hartu behar da. Bakarrik egin beharreko lana da, distraziorik barik, arreta guztia ipinita.

Lauhortza

Markel Sanchez Zelaia
Behargina

Infiltratuta

Asteon argitaratu du Directa agerkariak Kataluniako ezker independentismoko zenbait antolakundetan Espainiako Poliziako agente bat infiltratuta egon dela bi urtez. Egoeraren larria alde batera utzita, aitortu behar dut infiltratuen gaiak asko kitzikatzen nauela, istorio zirraragarriak iruditzen zaizkidala.

Cambridgeko boskoteko Kim Philbyk, Lehen Mundu Gerrako Mata Harik, Willy Brandt kantzilerraren idazkari izatera heldu zen Günter Guillaumek, Trotskiri buruan pioleta sartu zion Ramón Mercaderrek, Ursula Kuczynskik, Joan Pujolek, Richard Sorgek eta beste hainbatek bizitza sinestezinak izan zituzten. 1980tik 2000ra artean, Scotland Yardek agenteak infiltratu zituen zenbait herri mugimendutako kideen artean, eta batzuek seme-alabak ere eduki zituzten eurekin.

Askotan pentsatu dut etengabeko antzerki horretan, sortzen diren harremanek zenbat duten gezurretik eta zenbat, ezinbestean, egiatik. Burua hotz edukita ere, ez ote den loratzen maitasuna ustekabean. Konbikzio sendoak edo lanaren ordaina nahikoa ote diren inguru horretan norbera ez aldatzeko.

Batzuei entzun diet, ahapeka, behar dela Ertzaintzan jende jator, abertzale eta, are, ezkertiarra sartzea, hor ere eraldaketak egin gura badira. Sartu diren gazte batzuek ere badiote eurak ez direla lehengo sasoietakoak modukoak, arazoa iraganean balego lez. Baina poliziak, azken batean, erregimenaren eta ezarritako ordenaren zaindari dira, datozen garai nahasietan gure kontra biolentzia erabiliko dutenak, ezer eraldatu gura badugu. Eta eurak, gure bizi baldintzen okertzea babestuko dutenak, gure artean daude.